

## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### 2024ko MARTXOAREN 22an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA

2024ko martxoaren 22an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, eguerdiko 12:00 orduetan, Maite Arana Perez Alkate andrearen Lehendakartzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ZINEGOTZIAK: Maria Pilar Cortajarena Sorarrain  
Jose Antonio Rodriguez Rodriguez  
Vicente Garcia Momblona  
Jose Agustin Arrieta Eguiguren


BERE EZIN ETORRIA AZALTZEN DUTE: Ander Iturri Torrea eta  
Maria Isabel Vaquero Montero

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten diren Udalbatzarretako aktak onestu, hala badagokio/ Aprobación, si procede de las siguientes actas Plenarias:**
  - **2024ko otsailaren 23an egindako ohiko bilkura/ Sesión ordinaria de fecha 23 de febrero de 2024.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
- 3. Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.**
- 4. 2023ko aurrekontuaren likidazioaren berri ematea, hala bada./Dar cuenta de la liquidación correspondiente al ejercicio 2023.**
- 5. 1/2024 kreditu aldaketaren hasierako onespena (incorporación de créditos)/ Aprobación inicial de la modificación de créditos 1/2024 (incorporación de créditos).**
- 6. 2024ko apirilaren 21ean ospatuko diren Eusko Legebiltzarretako hauteskundeetako mahaikideak izendatzeko zozketa/ Sorteo para la designación de miembros de la mesa, para las elecciones al Parlamento Vasco a celebrar el próximo 21 de abril de 2024.**
- 7. Larraulgo guraso elkarteak jasotako 2023 urteko diru-laguntzaren zuriketa/Justificación de la ayuda económica recibida en el ejercicio 2023 presentada por Larraulgo guraso elkarteak.**
- 8. Larraulgo guraso elkarteak 2024 urteari dagokion diru-laguntza eskaera./ Solicitud de subvención de Larraulgo guraso elkareak correspondiente al año 2024.**
- 9. Aiztondo Neskide kirol taldeari 2023 urtean emandako diru-laguntzaren kitapenaren onespena./Justificación de la ayuda**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

- económica recibida en el ejercicio 2023 presentada por Aiztondo Neskide kirol taldea.
10. Aiztondo Neskide kirol taldeak 2024 urteari dagokion diru-laguntza eskaera./ Solicitud de subvención de Aiztondo Neskide elkarteak correspondiente al año 2024.
  11. Aiztondo Neskide kirol taldeak 2024 urteari dagokion diru-laguntza eskaera./ Solicitud de subvención de Aiztondo Neskide elkarteak correspondiente al año 2024.
  12. Tolosaldeko arraun elkarteak 2024 urteari dagokion diru-laguntza eskaera./ Solicitud realizada por Tolosaldeko arraun elkartea, de ayuda económica correspondiente al ejercicio 2024.
  13. 2024urterako Udal zergen hobari eskaeren onespina, hala bada./ Aprobación de las bonificaciones en los impuestos municipales correspondientes al ejercicio 2024.
  14. Larraulgo 02.133 partzelaren azterketa ekologikoa egin eta laburpen txostena idazteko lanen esleipena./ Adjudicación de los trabajos de estudio ecológico y redacción del informe resumen de la parcela 02.133 de Larraul.
  15. Larraulgo udalaren euskara sustatzeko plana idazteko lanen esleipena./ Adjudicación de los trabajos de redacción del plan de promoción del euskera del ayuntamiento de Larraul.
  16. Larraulgo udaleko artxibo digitalaren webgunea eratu eta artxibatzeko lanen esleipena./ Adjudicación de los trabajos de creación de la página web del archivo digital y el archivo de expedientes del Ayuntamiento Larraul.
  17. Beste batzuk/Otros.
  18. Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.

..//...

### **LEHENENGO PUNTUA**

#### **ONDOREN ADIERAZTEN DIREN UDALBATZARRETAKO AKTAK ONESTU, HALA BADAGOKIO**

- ▣ 2024 urteko otsailaren 23an egindako Udalbatzaren ohiko bilkurako akta. Irakurri ondoren udalbatzak, aho batez, onesten du.

### **BIGARRENKO PUNTUA**

#### **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren, Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 2024 urteko 08/2024tik 13/2024ra Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**HIRUGARRENGO PUNTUA**  
**FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

KIROLZER	54,60
TOLOMENDI	2111,43
TELEFONICA	61,33
SECURITAS DIRECT	54,39
SECURITAS DIRECT	55,04
OSCAR GALINDO	133,10
MAQUELSA	17,50
ZU ETA BOK	1677,60
OSTATUA	70,00
ARRATE ITURBE	2269,96
TELEFONICA	83,49
TELEFONICA	118,58
REPSOL	11,67
EBA ERKIZIA	1098,87
REPSOL	172,33
REPSOL	63,64
REPSOL	260,36
REPSOL	84,81
TOLOMENDI	1045,29
BERRI LANTEGIA	20,50
BERTSOZALEAK KULTUR ELKARTEA	31,00
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	1433,42
BABESA SUZAI	358,70
ELIZETXEA	36,30


Udalbatza honek, **ahoz** batez hurrengo,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **11.323,91** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

**LAUGARREN PUNTUA**

**2023KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA, HALA BADA**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ondoren batzarkideei 2023 ekitaldiko Udal Aurrekontu Orokorraren likidazioaren berri ematen da, 2024/11 zenbakia duen eta 2024ko martxoaren 18an Alkate Ebazpenez onartua izan zena:

### “2024/11 DEKRETUA

Udal honen 2023ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontuhartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

#### EBATZI DUT


**Lehena.-** Udal honen 2023ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

#### DIRUZAINZTA GERAKINA

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2023-12-31n:		215.934,84
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2023-12-31n:		12.486,69
Aurrekontuko zordunak :	11.959,46	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	527,23	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2023-12-31n:		64.986,89
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	39.973,60	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	25.013,29	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2-3):		163.434,64
5.- Saldo kobragaitzak:		0,00
6.- Gehiegizko finantzaketa lotua:		0,00
7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):		163.434,64

#### AURREKONTUKO EMAITZA

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	-37.378,61
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	-0,00



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	79.671,86
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	0,00
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):	42.293,25

### KREDITU GERAKINAK

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	93.270,50
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	57.319,71
3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):	150.590,21

**Bigarrenena.-** Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

**Hirugarrena.-** Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.”

Batzarkideak jakinaren gainean gelditzen dira.

### **BOSTGARRENGO PUNTUA**

### **1/2024KREDITU ALDAKETAREN HASIERAKO ONESPENAREN BERRI EMATEA(KREDITU TXERTAKETA)**

Ondoren batzarkideei 2024 ekitaldiko Udal Aurrekontu Orokorraren 1/2024 zenbakidun kreditu aldaketaren berri ematen da (kreditu txertaketa), 2024/13 zenbakia duen eta 2024ko martxoaren 27an Alkate Ebazpenez onartua izan zena:

#### **2024/13 ALKATEAREN EBAZPENA**


Ikusita Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu txertaketaren modalitatekoa, 2024-KALD-000001-00 zenbakiduna,

Ikusita Idazkari kontu-hartzailearen txostena eta ziurtagiriak,

Ikusita Kontuhartzaileak egindako aldeko txostena eta onarpen proposamena,

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 32.6. artikulua bitartez, kreditu txertaketa onartzeko ematen dizkidan eskumenez baliatuz, honako hau

**EBATZI DUT**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**Lehenengoa.**- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu txertaketen modalitatekoa, 2024-KALD-000001-00 zenbakiduna, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

### GASTUAK

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
6	INBERTSIO ERREALAK	37.162,50
<b>TXERTATUTAKO GERAKINAK GUZTIRA</b>		<b>37.162,50</b>

### FINANTZAKETA

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	37.162,50
<b>FINANTZAKETA GUZTIRA</b>		<b>37.162,50</b>

**Bigarrena.**- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzaitza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa.

Batzarkideak jakinaren gainean gelditzen dira.

### **SEIGARREN PUNTUA**

**2024KO APIRILAREN 21an OSPATUKO DIREN EUSKO  
LEGEBILTZARRETAKO HAUTESKUNDEETAKO MAHAIKIDEAK  
IZENDATZEKO ZOZKETA**

Ikusirik datorren apirilaren 21ean Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeak ospatuko direla eta mahaikideen izendatze zozketa burutu behar dela, zozketa ida-celec aplikazio sistemaren bidez egingo delarik.

Izendatze zozketari hasera ematen dio Alkate andreak, ondoren aipatzen diren mahaikideak izendatzen direlarik:

LEHENDAKARIA: JUAN PEDRO LOPEZ TENA


1. ORDEZKOA: EIDER AROCENA CIRACO
2. ORDEZKOA: IBON JAUREGUI BALERDI

1. BOKALA: IMANOL ARANZABAL LASA

1. ORDEZKOA: JON KOLDO JAUREGUI SARASOLA
2. ORDEZKOA: IGOR BARANDIARAN PEREZ DE ARRILUZEA

2. BOKALA: JON URBIETA OTAEGUI

1. ORDEZKOA: IÑIGO BENGEOA NOGUERO



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

2. ORDEZKOA: JON MIRENA VIANA AURENSANZ

### **ZAZPIGARREN PUNTUA**

#### **LARRAULGO GURASO ELKARTAK JASOTAKO 2023 URTEKO DIRU-LAGUNTZAREN ZURIKETA**

Ikusirik "Larraulgo guraso elkarteak", aurkeztu duela 2023 urtean jasotako diru-laguntzen kitapena.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: "Larraulgo guraso elkarteak", 2023 urteko Larraulgo udaletik jasotako diru-laguntza zuritzeko, aurkezturiko kitapena onesten da.

### **ZORTZIGARREN PUNTUA**

#### **LARRAULGO GURASO ELKARTEAK 2024 URTEARI DAGOKION DIRU-LAGUNTZA ESKAERA**

Ikusirik Larraulgo guraso elkarteak eginiko eskaera, non azaltzen duten urtean zehar hainbat ekintza burutzen dituztela eta hauen kostua finantzatzeko Larraulgo Udalari diru-laguntza eskaera egiten diete.

Ikusirik 2024 urteko udal aurrekontuetako 422.323.00.01 partidari Larraulgo Guraso elkarteari 2.500,00 euroko diru-kopuruko laguntza aurreikusi dela.

Ikusirik, aipaturiko diru-laguntza gauzatzeko prestatu dela hitzarmen zirriborro bat.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo guraso elkarteari 2.500,00 eurotako diru-laguntza ematea, urtean zehar antolatzen dituen ekintzetarako.

BIGARRENA: 2.500,00 eurotako gastua onartzea, eta bere ordainketa egitea agintzea 2024 urteko udal aurrekontuetako 422.323.00.01 partidaren kontura.

HIRUGARRENA: Larraulgo udalaren eta Larraulgo guraso elkartearen arteko hitzarmena onestea eta Maite Arana Perez alkatesa ahalmentzea aipaturiko hitzarmena sina dezan.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LAUGARRENA: Larraulgo Guraso Elkarteari jakitera ematea, egin duen gastuen memoria bat eta dagozkien fakturak aurkeztu beharko dituela, Udalak emandako diru-laguntza zurituaz.

BOSTGARRENA.- Akordio honen berri interesdunari ematea.

### **BEDERATZIGARREN PUNTUA** **AIZTONDO NESKIDE KIROL TALDEARI 2023 URTEAN EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAREN KITAPENAREN ONESPENA**

Ikusirik “Aiztondo Neskide kirol klubak”, aurkeztu duela 2023 urtean jasotako diru-laguntzen kitapena.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: “Aiztondo Neskide kirol klubak”, 2023 urteko Larraulgo udaletik jasotako diru-laguntza zuritzeko, aurkezturiko kitapena, Larraulgo udalak onesten du.

### **HAMARGARREN PUNTUA** **AIZTONDO NESKIDE KIROL TALDEAK 2024 URTEARI DAGOKION DIRU-LAGUNTZA ESKAERA**

Ikusirik Aiztondo Neskide Kirol Kluba-k eginiko eskaera, non dioen, bailarako emakumeen kirola bultzatzeko sortu berria den klub honek, euren jarduerekin aurrera ekiteko ezinbestekoa dela bailarako udalerrien diru-laguntza. Horregatik Aiztondo bailarako udaletxeari diru-laguntza egiten die.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:


LEHENGOA.- Neskide Kirol Kluba-ri 414,00 eurotako ekarpena burutzea 2024ko Udal aurrekontuetako 422.341.00.04 Kontu sailaren kargura.

BIGARRENA.- 414,00 eurotako gastua onestea.

HIRUGARRENA: Aiztondo Neskide Kirol Kluba-ri jakitera ematea, egin duen gastuen memoria bat eta dagozkien fakturak aurkeztu beharko dituela, Udalak emandako diru-laguntza zurituaz.

LAUGARRENA.- Akordio honen berri interesdunari ematea.





**LARRAULGO UDALA**

(GIPUZKOA)

**HAMABIGARREN PUNTUA**

**TOLOSALDEKO LANDA GARAPENERAKO ELKARTEARI,  
TOLOMENDI-ri 2023 URTEARI DAGOKION EKARPENA BURUTZEA**

Ikusirik Tolosaldeko Landa Garapen elkarteak, TOLOMENDI-k, 2024ko otsailaren 26an Tolosan ospatutako urteko Batzar Orokorrean, 2024 urterako Elkartearen aurrekontua onartu zuela.

Ikusirik goian aipaturiko banaketa horren ondorioz, Larraulgo Udalari 2.111,43 euro ordaintzea dagokiola, elkartearen funtzionamendurako.

Ikusirik kreditu nahikoa aurreikusia dagoela.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengoa

**ERABAKITZEN DUTE:**

LEHENGOA.- Tolomendi Landa Garapen Elkarteari 2.111,43 eurotako ekarpena burutzea 2024 ekitaldiko funtzionamendu gastuei aurre egiteko, udal aurrekontuetako 422.410.00.01 partidaren kargura.

BIGARRENA.- 2.111,43 eurotako gastua onestea.

**HAMABIGARREN PUNTUA**

**TOLOSALDEKO ARRAUN ELKARTEAK 2024 URTEARI DAGOKION DIRU-  
LAGUNTZA ESKAERA**

Ikusirik Tolosaldea Arraun klubak eginiko eskaera, non azaltzen duten 2018 urtean bailaran emakumezkoen traineru bat antolatu zutela, emaitzak oso onak izan direlarik. Hauek horrela, Traineru horrekin jarraitzeko diru-laguntza eskaera egiten dute bailarako udaletxe guztiei, 0,50 euro biztanleko eskaera eginik.


Ikusirik 2024ko udal aurrekontuetako 422.341.00.03 partidan 100,00 euro aurreikusi direla.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

**ERABAKITZEN DU:**

LEHENA: Tolosaldea Arraun Klub-ari 100,00 eurotako ekarpena burutzea 2024ko Udal aurrekontuetako 422.341.00.03 Kontu sailaren kargura.

BIGARRENA.- 100,00 eurotako gastua onestea.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

HIRUGARRENA: Tolosaldea Arraun Klub-ari jakitera ematea, egin duen gastuen memoria bat eta dagozkien fakturak aurkeztu beharko dituela, Udalak emandako diru-laguntza zurituaz.

LAUGARRENA.- Akordio honen berri interesdunari ematea.

### **HAMAHIRUGARREN PUNTUA** **2024 URTERAKO UDAL ZERGEN HOBARI ESKAEREN ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik 2024 urterako Udal zerga-tasen hobari eskaerak egiteko 2024ko otsailaren 1etik 29 arte epea ireki zela, 16 eskaera egon direlarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa


ERABAKITZEN DU:

LEHENEA: Ondoren zerrendatzen diren 2024urterako udal zerga-tasen hobari eskaerak onestea:

<b>TITULARRA</b>	<b>ZERGA</b>	<b>ARRAZOIA</b>	<b>ZENBA TEKOA</b>
O.O.R.	OHGZ	FAMILI UGARIA	%50
M.S.G	OHGZ	FAMILI UGARIA	%50
I.A.O	OHGZ	FAMILI UGARIA	%50
L.M.T.Z.	OHGZ	FAMILI UGARIA	%50
M.M.T.	OHGZ	FAMILI UGARIA	%50
A.A.J	OHGZ	EGUZKI APROBE.	%25
I.O.D.	OHGZ	EGUZKI APROBE.	%25
L.M.T.	OHGZ	EGUZKI APROBE.	%25
A.I.R.	OHGZ	EGUZKI APROBE.	%25
K.V.D.W.	OHGZ	EGUZKI APROBE.	%25
I.U.A.	OHGZ	EGUZKI APROBE.	%25
A.R.E.	OHGZ	EGUZKI APROBE.	%25
A.S.V.	TMIGZ	IBILGAILU HISTO.	%50
K.J.S.	TMIGZ	IBILGAILU HISTO.	%50
J.J.A.U.	TMIGZ	IBILGAILU HISTO.	%50
J.J.A.U.	TMIGZ	IBILGAILU HISTO.	%50

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesdunei ematea.

### **HAMALAU GARREN PUNTUA** **LARRAULGO 02.133 PARTZELAREN AZTERKETA EKOLOGIKOA EGIN ETA LABURPEN TXOSTENA IDAZTEKO LANEN ESLEIPENA**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Larraulgo Udalak beharrezkoa ikusten du, dohaintzan emandako Larraulgo 02 poligonoko 133 partzelaren azterketa ekologikoa egin eta laburpen txostena egiteko lanen esleipena egitea.

Ikusirik, Larraulgo Udalak ez dituela baliabide pertsonal eta materialik lan hauek egiteko.

Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko kontratu legeko 118 artikulua araberak kontratu txiki baten aurrean gaude.

*Artículo 118. Expediente de contratación en contratos menores.*

*1. Se consideran contratos menores los contratos de valor estimado inferior a 40.000 euros, cuando se trate de contratos de obras, o a 15.000 euros, cuando se trate de contratos de suministro o de servicios, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 229 en relación con las obras, servicios y suministros centralizados en el ámbito estatal.*

*En los contratos menores la tramitación del expediente exigirá el informe del órgano de contratación motivando la necesidad del contrato. Asimismo se requerirá la aprobación del gasto y la incorporación al mismo de la factura correspondiente, que deberá reunir los requisitos que las normas de desarrollo de esta Ley establezcan.*


*2. En el contrato menor de obras, deberá añadirse, además, el presupuesto de las obras, sin perjuicio de que deba existir el correspondiente proyecto cuando normas específicas así lo requieran. Deberá igualmente solicitarse el informe de las oficinas o unidades de supervisión a que se refiere el artículo 235 cuando el trabajo afecte a la estabilidad, seguridad o estanqueidad de la obra.*

*3. En el expediente se justificará que no se está alterando el objeto del contrato para evitar la aplicación de las reglas generales de contratación, y que el contratista no ha suscrito más contratos menores que individual o conjuntamente superen la cifra que consta en el apartado primero de este artículo. El órgano de contratación comprobará el cumplimiento de dicha regla. Quedan excluidos los supuestos encuadrados en el artículo 168.a).2.º*

*4. Los contratos menores se publicarán en la forma prevista en el artículo 63.4.*

Zerbitzu kontratu txiki bat bezala hartu behar da, 15.000 € azpitik dagoelako eta bestalde, Alkatetzaren eskuduntza ere bada, gastua 6.000,00€ azpitik ere dagoelako.

Bestalde adierazi behar dugu kontratuaren xedea ez dugula aldatzen kontratazio administratiboko arau orokorrak edo prozedurak ekiditeko.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Beraz, Toki jardunbidearen oinarrien apirilaren 2ko 7/1985 legeak eta Azaroaren 8ko 9/2017 legeak (Sektore Publikoko Kontratazio arautzen duena) ematen dizkidan eskuduntzaz baliatuaz, ondorengo ERABAKIA hartzen dut:

LEHENA: ERREZ KOOP. ELKARTE TXIKIARI, Larraulgo 02 poligonoko 133 partzelaren azterketa ekologikoa egin eta laburpen txostena egiteko lanen esleipena onestea, 1.444,00€ (BEZa kanpo) diru-kopuruan, 1.0000.643.170.00.01 kontu sailaren kontura "Azterketa ekologikoa".

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

### **HAMABOSTGARREN PUNTUA** **LARRAULGO UDALAREN EUSKARA SUSTATZEKO PLANA IDAZTEKO LANEN ESLEIPENA**

Larraulgo Udalak beharrezkoa ikusten du, Larraulgo udalaren euskara sustatzeko plana idazteko lanen esleipena egitea.

Ikusirik, Larraulgo Udalak ez dituela baliabide pertsonal eta materialik lan hauek egiteko.

Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko kontratu legeko 118 artikulua araberak kontratu txiki baten aurrean gaude.

*Artículo 118. Expediente de contratación en contratos menores.*

*1. Se consideran contratos menores los contratos de valor estimado inferior a 40.000 euros, cuando se trate de contratos de obras, o a 15.000 euros, cuando se trate de contratos de suministro o de servicios, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 229 en relación con las obras, servicios y suministros centralizados en el ámbito estatal.*

*En los contratos menores la tramitación del expediente exigirá el informe del órgano de contratación motivando la necesidad del contrato. Asimismo se requerirá la aprobación del gasto y la incorporación al mismo de la factura correspondiente, que deberá reunir los requisitos que las normas de desarrollo de esta Ley establezcan.*

*2. En el contrato menor de obras, deberá añadirse, además, el presupuesto de las obras, sin perjuicio de que deba existir el correspondiente proyecto cuando normas específicas así lo requieran. Deberá igualmente solicitarse el informe de las oficinas o unidades de supervisión a que se refiere el artículo 235 cuando el trabajo afecte a la estabilidad, seguridad o estanqueidad de la obra.*

*3. En el expediente se justificará que no se está alterando el objeto del contrato para evitar la aplicación de las reglas generales de contratación,*



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

*y que el contratista no ha suscrito más contratos menores que individual o conjuntamente superen la cifra que consta en el apartado primero de este artículo. El órgano de contratación comprobará el cumplimiento de dicha regla. Quedan excluidos los supuestos encuadrados en el artículo 168.a).2.º*

*4. Los contratos menores se publicarán en la forma prevista en el artículo 63.4.*

Zerbitzu kontratu txiki bat bezala hartu behar da, 15.000 € azpitik dagoelako eta bestalde, Alkatetzaren eskuduntza ere bada, gastua 6.000,00€ azpitik ere dagoelako.

Bestalde adierazi behar dugu kontratuaren xedea ez dugula aldatzen kontratazio administratiboko arau orokorrak edo prozedurak ekiditeko.

Beraz, Toki jardunbidearen oinarrien apirilaren 2ko 7/1985 legeak eta Azaroaren 8ko 9/2017 legeak (Sektore Publikoko Kontratazio arautzen duena) ematen dizkidan eskuduntzaz baliatuaz, ondorengo ERABAKIA hartzen dut:

LEHENA: EMUN, EUSKARA ETA BERRIKUNTA SOZIALA enpresari, Larraulgo udalaren euskara sustatzeko plana idazteko lanen esleipena onestea, 2.925€ (BEZa kanpo) diru-kopuruan, 1.0000.643.335.00.01 kontu sailaren kontura "Euskara biziberritzeko plana".

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

### **HAMASEIGARREN PUNTUA** **LARRAULGO UDALEKO ARTXIBO DIGITALAREN WEBGUNEA ERATU ETA ARTXIBATZEKO LANEN ESLEIPENA**

Larraulgo Udalak beharrezkoa ikusten du, Larraulgo udaleko artxibo digitalaren webgunea eratu eta artxibatzeke lanen esleipena egitea.

Ikusirik, Larraulgo Udalak ez dituela baliabide pertsonal eta materialik lan hauek egiteko.

Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko kontratu legeko 118 artikulua araberak kontratu txiki baten aurrean gaude.

*Artículo 118. Expediente de contratación en contratos menores.*

*1. Se consideran contratos menores los contratos de valor estimado inferior a 40.000 euros, cuando se trate de contratos de obras, o a 15.000 euros, cuando se trate de contratos de suministro o de servicios, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 229 en relación con las obras, servicios y suministros centralizados en el ámbito estatal.*



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

*En los contratos menores la tramitación del expediente exigirá el informe del órgano de contratación motivando la necesidad del contrato. Asimismo se requerirá la aprobación del gasto y la incorporación al mismo de la factura correspondiente, que deberá reunir los requisitos que las normas de desarrollo de esta Ley establezcan.*

*2. En el contrato menor de obras, deberá añadirse, además, el presupuesto de las obras, sin perjuicio de que deba existir el correspondiente proyecto cuando normas específicas así lo requieran. Deberá igualmente solicitarse el informe de las oficinas o unidades de supervisión a que se refiere el artículo 235 cuando el trabajo afecte a la estabilidad, seguridad o estanqueidad de la obra.*

*3. En el expediente se justificará que no se está alterando el objeto del contrato para evitar la aplicación de las reglas generales de contratación, y que el contratista no ha suscrito más contratos menores que individual o conjuntamente superen la cifra que consta en el apartado primero de este artículo. El órgano de contratación comprobará el cumplimiento de dicha regla. Quedan excluidos los supuestos encuadrados en el artículo 168.a).2.º*

*4. Los contratos menores se publicarán en la forma prevista en el artículo 63.4.*

Zerbitzu kontratu txiki bat bezala hartu behar da, 15.000 € azpitik dagoelako eta bestalde, Alkatetzaren eskuduntza ere bada, gastua 6.000,00€ azpitik ere dagoelako.

Bestalde adierazi behar dugu kontratuaren xedea ez dugula aldatzen kontratazio administratiboko arau orokorrak edo prozedurak ekiditeko.

Beraz, Toki jardunbidearen oinarrien apirilaren 2ko 7/1985 legeak eta Azaroaren 8ko 9/2017 legeak (Sektore Publikoko Kontratazio arautzen duena) ematen dizkidan eskuduntzaz baliatuaz, ondorengo ERABAKIA hartzen dut:


LEHENA: EREITEN KZ enpresari, Larraulgo udaleko artxibo digitalaren webgunea eratu eta artxibatzeke lanen esleipena onestea, 4.121,00€ (BEZa kanpo) diru-kopuruan, 1.0000.227.920.00.99 kontu sailaren kontura "Beste enpresak emandako zerbitzuak: artxiboa".

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

### **HAMAZAZPIGARREN PUNTUA**

#### **BESTE BATZUK**

***Presazko arrazoiak direla eta gai zerrendan ez zeuden ondorengo puntuak aztertzea erabaki dute bertaratuek aho batez.***



**LARRAULGO UDALA**

(GIPUZKOA)

## **17.1. 2023 URTERAKO TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN ZERGAREN ERROLDAREN ONESPENA**

Ikusirik 2024 ekitaldirako Trakzio Mekanikoko ibilgailuen gaineko Udal Zergaren Erroldaren berri ematen dela, kuota garbia 23.838,17 eurokoa delarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- 2024 ekitaldirako Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari dagokion Udal errolda onartzea eta 11/1989 Legeak, Herri Ogasunei buruzkoak 14.1 artikuluan xedaturikoari jarraituz hilabeteko epean espedientea jendaurrean ipini, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, edonork aztertu eta egoki dituen iradokizunak burutu ditzan.

BIGARRENA.- Aipaturiko zerga ordaintzeko borondatezko epea, onarturiko 2024 ekitaldirako Zerga Egutegiari jarraituz, 2024ko apirilaren 2tik ekainaren 3ra bitartekoa izatea.

### **HEMEZORTZIGARREN PUNTUA** **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkezten.

Beste gairik ez dagoenez, goizeko 12:25 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, behin-behineko Idazkaria naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.